

Gizarte foro honetan, komunikabideek kohesioan duten paperaz eztabaidatzea dugu helburu. Aurretik, "Gure jendeak: gizartea eta kultura" deituriko herritarren mahaian, kohesioaz, aniztasunaz, euskal komunikazio sistemaz eta testuinguru digitalaz eztabaidatzeko aukera izan genuen. Eztabaida horren abiapuntua lurralde guztietako aditu askoren ekarpenak biltzen duen *liburu berdea* da; dokumentazioaren atalean eskuragarri jartzen da foroaren gaiarekin lotutako kontzeptu mapa eta diagnosiari hurbilketa egin ahal izateko ere.

Aipatutako kontzeptu mapa eta diagnosa abiapuntu, herritarrek, arlo horietan dituzten hainbat kezka eta galderak helarazi zituzten, eta horiek izango dira Fororako abiapuntua. Bigarren urrats honen helburua beraz, komunikazioaren gaian dabilzan lurralde eta arlo desberdinetako eragileek herritarrek adierazitako lehentasun eta galderak erantzutea eta proposamenak eraikitzea izango da.

HERRITARREN GALDERAK

Komunikabideak, herriaren eta jendartearen ekoizle

- Zein da komunikabideen garrantzia herri bezala bizi izateko?
- Herri bat edo gizarte bat noraino da modu zuzenean esperimentatzen dugun egitate bat, eta noraino irudikatzen dugun egitate bat? Irudikatze horretan, zein leku dute komunikabideek? Komunikabideek jendartea islatu egiten dute, ala eraiki?
- Komunikabideek gero eta lotura txikiagoa dute lurraldearekin. Hortaz euskal lurraldeetatik harago eraiki ote liteke nazioa, komunikabideen bitartez (adibidez munduan sakabanatutako euskal komunitate globaleraino iritsiz)?
- Komunikabideen aniztasunik badago gaur egungo euskal lurraldeetan?
- Zer eskatu beharko litzaieke komunikabideei euskal jendarte kohesionatu bat isla dezaten?
- Nola sortu daiteke euskal lurraldeen arteko espazio komunikatibo komuna? Zer eginkizun edo egitasmo partekatu planteatu ditzakezue elkarlanean hori eraikitze aldera?

Komunikazio modu ezberdinak eta komunikazio espazioa

- Komunikabideak geure burua jendarte gisa eta herri gisa eraikitzeke tresna uste badugu, zein komunikabidez ari gara? Komunikabide tradizionalak (irratia, prentsa, telebista) ala komunikazio mota berriez?
- Digitalizazioak eta sareak, aukerak ala arriskuak dakartza euskal jendartearen eta euskal lurraldeen kohesiorako?
- Zer eskaini ahal dute komunikabide tradizionalak herri gisa eraikitzeke bidean, eta zer komunikazio mota berriek?
- Euskal komunikazio espazioak hitz egin daitezke gaur egun? Ba ote dago euskal herritarrok elkartzen gaituen komunikazio espaziorik? Baiezkoan, zertan hezuramaitzen edo oinarritzen da espazio hori?
- Gaur egun ba ote dago euskal edo nafar iritzi publikorik? Zer beharko litzateke komunikazio espazio hori eraiki edo sendotzeko? Zer egin beharko litzateke erakunde publikoetatik? Eta herri ekimenetik? Ekimen pribatuak ere proiektuan parte har dezan, zer egin beharko litzateke?

Hizkuntza eta komunikazioa

- Kontuan hartuta gaur egun Euskal Herria herri proiektu gisa hartzen duten zenbait komunikabide hizkuntza ezberdinetan ari direla (batzuk euskaraz, beste batzuk gaztelaniaz eta beste batzuk frantsesez), esan ote daitezke hizkuntza ezberdinetan ere eraiki daitezkeela euskal jendarte kohesionatua?
- Aurrekoa posiblea bada, egiteko ezberdina eman beharko litzateke hizkuntza bateko eta besteko komunikabideei?
- Posiblea ez bada, aldiz, nola jokatu beharko lukete, herri proiektu hura aintzat hartzen duten komunikabideek, biztanle guztiei proiektuan integratzeko aukera emateko, haien hizkuntza soslaiak direnak direla?
- Euskal iritzi publikorik baldin badago, agenda bakarra dago espazio horretan, ala hizkuntzen araberrako agenda ezberdinak daude?